

BASAURIN IRISMEN UNIBERTSALA SUSTATZEA



<u>SARRERA</u>	3
1. <u>UDALERRIAREN DIAGNOSTIKOA</u>	3
1.1 <u>LURRALDEAREN EZAUGARRIAK</u>	3
1.2 <u>BIZTANLERIA</u>	5
2. <u>IRISMEN PLANA</u>	7
<u>JARDUNAK</u>	9
1. <u>INGURUNE FISIKOA</u>	9
1.1 <u>JARDUERAK BIDE PUBLIKOAN</u>	9
<u>ESKAILERA ETA KORRIDORE MEKANIKOAK</u>	9
<u>ARRAPALAK</u>	10
<u>KALE ETA ESPALOIAK BERRITZEA</u>	11
<u>PLAZAK</u>	12
<u>BERRIRO URBANIZATZEKO JARDUERA INTEGRALA</u>	13
<u>HIRI IGOGAILUAK</u>	15
<u>ZUBIAK ETA PASAGUNEAK</u>	17
1.2 <u>MUGIKORTASUN HURBILERRAZEKO BIDEA</u>	18
<u>IBAIERTZEKO IBILBIDEA</u>	18
<u>SAN MIGELERA KO BIZIKLETA ERREIA</u>	19
1.3 <u>BESTE JARDUERA BATZUK</u>	20
<u>SEMAFORO SOINUDUNAK</u>	20
<u>HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA</u>	20
<u>PODOTAKTILAK</u>	21
<u>MINUSBALIATUENTZAKO APARKAMENDUAK</u>	22
1.4 <u>JARDUERAK ERAIKIN PUBLIKOETAN</u>	23
<u>UDALETXEA</u>	23
<u>EPAITEGIA</u>	24
<u>IKASTETXEAK</u>	24
<u>KIROL EKIPAMENDUAK ETA EKIPAMENDU</u>	
<u>SOZIOKULTURALAK</u>	26
1.5 <u>JARDUERAK ERAIKIN PRIBATUETAN</u>	29
2. <u>GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA</u>	31
2.1 <u>METROA</u>	31
2.2 <u>ANEZKAK</u>	32
3. <u>TEKNOLOGIA BERRIAK</u>	32
3.1 <u>WEB ORRIRA SARBIDEA</u>	32
3.2 <u>KANAL ASKOTAKO ZERBITZUA</u>	34
3.3 <u>E-BASAURI 2010</u>	34
3.4 <u>ALDI BEREKO ITZULPENAK</u>	35
3.5 <u>TRAMITAZIO ELEKTRONIKORAKO GUNEAK</u>	35
4. <u>PRESTAKUNTZAKO, KIROLEZKO</u>	
<u>ETA GIZARTE PROGRAMAK</u>	36
4.1 <u>BASAURIKO PROBAK MEETINGA</u>	36
4.2 <u>BESTE PROGRAMA BATZUK</u>	37
4.3 <u>PERTSONA ZAINZAILARI BEGIRA, AUTONOMIA</u>	
<u>ETA LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA LANTZEA</u>	39
4.4 <u>MOBILIZAZIO ETA TRANSFERENTZIEN TAILERRA</u>	39
4.5 <u>PROGRAMEI LAGUNTZA ESKAINTZEA</u>	40



SARRERA

1 UDALERRIAREN DIAGNOSTIKOA

1.1 LURRALDEAREN EZAUGARRIAK ETA KOKAPENA

Basauriko udalerriak 7,16 km²-ko zabalera du, eta Bilboko eremu metropolitarran dago, zehazki, Behe-Nerbioi eskualdean. Basaurin, Bizkaiko bi ibai garrantzitsuenak batzen dira: Nerbioi eta Ibaizabal, horiek ibai-lautada txiki bat osatzen dute, zenbait meandroz osatua, eta gaur egunean horietan, gehienbat, industria-instalazioak daude.



XIX. mende amaierako industria-eraldaketa eman zen arte, lurralde hau nekazaritza eremua izan zen ia erabat, baina gero, industria eta etxebizitzak ezarri zirelarik modu masiboan, atzeraka joan da, eta gaur egun ia erabat desagerturik dago. Horrela, XIX. mende bukaeratik hasita, nola Bilbotik eta bere industria eremutik hurbil zegoen, eta Nerbioi goialdera eta erdialdera joateko bidegurutzea zelarik, lurralde hau industrien etorrerarekin eta horrekin batera etorri zen jende andanarekin, eraldatzen joan zen etengabe.

Gaur egunean, beste egoera bat nabarmendu behar dugu, izan ere, Bilbotik duen hurbiltasuna dela eta, 7 kilometro inguru, komunikazio sistema ona baitu eremu guzti horrek, eta orain dela gutxiko planifikazioa dela eta, Abiadura Handiko Trenaren linea bertatik pasako dela aurreikusten da, zeinak Madril frantziar mugarekin lotuko duen (Euskal Y – Mendebaldeko adarra, Gasteiz Bilborekin lotzen duen ibilbidea), eta bestalde baita ere, Bilbo inguruko errepideen komunikazio-bide berriak irekiko dira (A-8 eta A-68 autopisten arteko lotunea, Basauri, Zaratamo eta Arrigorriaga herriek osatutako triangeluan). Azpiegitura horiek, epe motzean, oso eragin nabarmenak sortuko dizkiote lurraldeari, eta horren ondorioz baita ere, aintzat hartzeko moduko eragina ekarriko die udalerriaren inguruabar ekonomiko eta sozialei.

Honako hauek izan dira udalerriaren ezaugarri sozio-ekonomikoak tradizionalki baldintzatu dituzten bi elementuak, batetik, azpiegiturei dagozkien zenbait ardatzen lotune estrategikoetan daukan kokapenak, Bilboren eta Euskal Herriko barnealdearen arteko beharrezko pasagune naturala den heinean, eta bestetik, Bilbo Handia deitutakoaren barnean, informalki bada ere, horren partaide izateak.

1.2 BIZTANLERIA

Biztanleriaren egituraren azterketak agerian jartzen du zahartze prozesu batean murgildurik gaudela, eta hori bereziki “zahartze indizea” kontuan hartzen dugunean bistaratzen da, 65 urtetik gorako herritarren eta 14 urtetik beherakoen herritarren erlazioa kontuan hartzen dugunean. Beste alde batetik, jarduera ekonomikoan adinaren banaketak duen eragina kontuan hartuta, hori menpetasun indizetik hasita jartzen da agerian, % 40tik hurbil dagoen balioarekin, eta horrek adierazten du ezen, biztanleriaren portzentaia horrek udalerriko gainontzeko biztanleriari eusten diola, lan egin dezakeen biztanleria den heinean.

Biztanleriaren egitura-taula adinaren arabera.

Zahartze eta menpetasun adierazleak (1/01/06)

Orotara	Haur biztanleria (0-14 urte)	Helduak 15-64 urte	Biztanleria nagusia (+64 urte)	Zahartze adierazlea (1) (%)	Menpetasun adierazlea (2) (%)
43.643	4.577	30.199	8.867	193,73	44,52
22.118 emakume	2.216	14.899	5.003	225,77	48,45
21.525 gizon	2.361	15.300	3.864	163,66	40,69

*Zahartze adierazlea = +64 urteko biztanleria / Biztan. 0-14 urte bitartean * 100.*

*Menpetasun adierazlea = 0-14 biztanleria + biztanleria + 64/15-65 * 100 biztanleria.*

Biztanleriaren dentsitatea, 6.235 biztanle/km², Euskal Erkidegokoa, oro hartuta, baino handiagoa da . Lurralde azaleraren mugak, eta horrek dituen ezaugarri orografikoak arrazoitzen dute biztanleriaren dentsitate handi hori inguruko beste eremu batzuen aldean.

1.3 ETXEBIZITZA PARKEAREN EGOERA

Udalerriko etxebizitza-parkearen gaur eguneko egoera baldintza topografikoen ondorioa da, izan ere horrek eragin baitzuen ezen, garapen industrialaren garaian, industriek lurrik lauenak okupatzea, Nerbioi



ibaiaren inguruan, eta aldiz hirigunea mendi hegaletan garatzea, eta hori horrela – orografia konplexua kontuan izanda- zaildu egiten da irismena udalerrian.

Nabarmentzeko datu bat da igogailuaren erabilgarritasuna etxebizitzetan. Adierazleen arabera, dentsitate gehien duen erdialdean, % 23,4k bakarrik du zerbitzu hori.

2 IRISMEN PLANA

Gaur egunean, ukaezina da ezen, arreta berezia eskaini behar zaiela, pertsona nagusiz osatutako biztanleriaren alor zabal bati, motaren bateko minusbaliotasuna duten pertsoneri eta arrazoi desberdinengatik ingurumenarekin erlazionatzekoan zailtasunen bat duten guztiei, izan ere guzti horiek oso baldintzatua ikusten baitute beren bizimodua gure

hirietan, eta beren premiei erantzun egokia emateko helburuz, ahalegina, bizitza sozialean erlazionatzeko eta parte hartzeko gaitasuna betebeteen lor dezaten, bideratu behar da. Kasu batzuetan, galdutako konfiantza berreskura

dezaten ahaleginduz, beste batzuetan, orain arte lortu ezin zezaketen hura lortzeko interesa bultzatzen ahaleginduz, eta

beti, beren bizitza kalitatea hobetzen ahaleginduz.

Gure ingurunearen diseinu urbano berria egiteko ahalegin eta baliabide handiak erabiltzen diren garai honetan, eta herritarra jarduera horiek hartzekoan harbera denean eta sentsibiltatea duenean, administrazioaren aldetik beharrezkoa da interesa eta ardura erakustea, irismena hiriaren diseinu orokorraren barruan sartuta dagoela ikustarazteko.

Basauriko Udalak, egoera horretaz jabetuta, Hiria denontzat izan behar duelako ustearekin egin nahi dio aurre etorkizunari.



Guztientzat izango den Irismen Planari ekin nahi bazaio, konpromisoa herritar guztiekin eta etorkizuneko belaunaldiekin izan behar du, modu honetan ulertuta:

Eremu publikoaren erabilera herritarren eskubide bat da, eta han gizarte eta kultura, adin eta genero desberdineko kolektibo desberdinak bildu eta agertzen dira.

Eremu publikoak hiriaren kalitatea definitzen du, jendearen bizi-kalitatearekin zerikusi zuzena baitauka.

Eremu publikoan irismeneko eskubidea izatea herritarren eskubide bat gehiago da. Informazio eta elkartruckerako irismena, irismena izatea aukeretara, irismena prestakuntza eta okupaziora, irismena hiri-eskaintzetara eta irismena hiriko espazio publikoaz jabetu eta hor adierazpena izateko.

Bertako biztanleen benetako premiei erantzun asmo dien plana, bizi-kalitatea hobetzeko helburua izango duena, nahiz eta berehalako onuradunak mugikortasun zailtasunak dituztenak izango diren.

Prestakuntza egokia eskatzen duen Plan bat, hori aurrera eramateko arduradunak diren pertsoneri, agintariei eta udal teknikariei zuzenduta

Parte hartzea eskatzen duen Plana, eta hori horrela, garrantzitsua da herritarren parte hartzeko mekanismoak bultzatzea, hala nola topaketak, lan-tailerrak, planaren informazioa eta zabalkundea, horiek erakunde publiko eta pribatuak ordezkatzeko dituztenean edo ez.

Azken helburua, beraz, bizitzeko hiri hobea lortzea da, herritarren bizi-kalitatea hobetzea, eta guztiengan pentsatuz, hor bizi diren, lan egiten duten, ikasten duten,

dibertitzen diren eta horrekin harremana duten guztiek, eta baita ere hori bisitatzeko duten guztiek, denen artean hobetu dezaten eta kalitate handiagokoa egin dezaten.

Testuinguru horretan sartzen da jardueren multzo guztia, modu jarraian, Basauriko Udalak aurrera eraman duena.

JARDUNAK

1 INGURUNE FISIKOA

1.1 JARDUERAK BIDE PUBLIKOAN

ESKAILERA ETA KORRIDORE MEKANIKOAK

1991. urtean jarri ziren erabilera publikoko lehen **eskailera mekanikoak**, Bidebietako **RENFE geltokia** eta San Fausto Plaza elkartuz, eta 14 metroko aldapa igotzen dute.




Basauri herri aitzindaria izan zen, **Landa Doktoeen kalean korridore mekaniko** bat jartzean, 1999. urtean. Horrek Udaletxe inguruko behealdea eta Basozelai auzoa elkar komunikatzen ditu, eta

16ko desnibela duen kota gainditzen du.

ARRAPALAK

Kale askotan egin dira lanak, eta eskailerak, koskak eta beste traba fisikoak kendu dira, izan ere horrelako ugari baitago, udalerriaren orografia bereziagatik dauden hainbat aldapa direla eta. Horrela, beste batzuen artean, hurrengo kale hauek birmoldatu dira: Leon 7 zenbakiaren aurrean, Francisco Perea, Karmelo Torre 5, 7 eta 9 zenbakiak, Antonio Trueba eta Kale Nagusia lotzeko tunela. Agirre Lehendakaria kalean trenbide azpiko pasagunea (antzinako eskailerak ordezkatzeko), Kareaga Goikoa eta Pozokoetxetik trenbide azpiko pasagunea (antzinako eskailerak ordezkatzeko). Hernan Cortes Auzunetik Gernika kalera sarbidea.

Jarduera horietako batzuen gaur eguneko egoera hurrengo agiri honetan islatzen da:



KALE ETA ESPALOIAK BERRRITZEA

Bide horretan, kale kopurua handia berritu eta zolatu da, kale-argi eta seinaleak lekuz aldatu dira, oinezkoen pasaguneak eraiki dira, baranda eta eskubandak jarri dira.

Espaloiak zabaldu dira, eta pertsona guztien oinezko erabilerarako egokitu dira.

Beste batzuen artean, hurrengo kale hauetan egin dira lanak:

- Karmelo Torre, Axular, Gipuzkoa, Fernando Barkin, Urbi
- Zuloaga Pintorea, Gernika, Basozelai, San Fausto, Debarroa, Madril



PLAZAK

Bere osotasunean berritu dira Arizgoiti Plaza, Pedro Lopez Cortazar Plaza eta Bentako Plaza.



BERRIRO URBANIZATZEKO JARDUERA INTEGRALA

Badira udalerrian, 50eko hamarkadan eraikitako auzuneak, barneko eremu komun



pribatuak
dituztenak, eta
horiek, denboraren
joanean, degradatu
egin dira.

Gainera askotan
trabak daude,

eskailera-maila forma dutenak, etxebizitzaren eraikinetako sarbidean dauden eskailerrak,
eta horiek guztiak eragotzi egiten diete horien erabilera mugikortasun urritua duten
pertsonei, eta zenbait kasutan, kalera nekez jaitsi daitezkeen kasuak ere ematen dira.




Jadanik, Hernan Cortes multzoa berriro erabat urbanizatzeari ekin zaio, eta baita ere, Basozelaiko antzinako futbol-zelai inguruarena, eta proiektua egina dago, Federico Mayo Multzokoa Arizen, eta Leon eta Andaluzia kaleetako plazena.



Jadanik onetsitako proiektuak dituzte Leon kaleko Plazek eta Autonomia kaleko Plazak.

Gainera, modu integralean jardun da Udal Hilerrian, eta traba arkitektonikoak kendu dira.



Lehenago




Gero

HIRI IGOGAILUAK

ZULOAGA PINTOREA KALEKO

IGOGAILUA, 2010eko apirilaren 28an inauguratu zen, Kareaga Behekoa eremuaren eta etorkizuneko metro geltokiaren arteko komunikazioa hobetzea lortuko da.



URBIKO IGOGAILUA,

2007tik bostehun etxebizitza baino gehiagori ematen diete zerbitzua, zeinak kota altuan baitaude.



FLEMING DOKTOREA, orain dela gutxi inauguratua, eskaileraz lotutako kota desberdinetako bi eremu elkarrekin harremanean jartzen ditu, Fleming Doktorearen kaleko higiezin bakoitzean geldialdi batekin. (4 geldialdi).

RENFE IGOGAILUA San Migelen, funtzionamenduan orain dela 6 urtetik.



ZUBIAK ETA PASAGUNEAK



Mercabilbao pasagunea

Mercabilbao eta Nerbioi ibaiaren ezkeraldea lotzen dituen oinezkoen pasagunea Ingurunea Berritzeko eta Ibai Ertzeko Proiektuaren zati da, Ingurumen Ministerioak, Konfederazio Hidrografikoaren bidez, egindako tartean, eta obra horiek orain dela gutxi amaitu dira.

Zubiak



Artunduaga Zubia



Baskonia Zubia

Artunduaga eta Baskonia zubi berriak eraikitze prozesuan daude. Bietan, oinezkoentzat eta bizikletentzat ibilbidea aurreikusten da. Gaur eguneko Artunduagako zuba oinezkoek erabiltzeko bakarrik geratuko da.

1.2 MUGIKORTASUN HURBILERRAZEKO IBILBIDEAK


IBAI ERTZEKO IBILBIDEA

Guztira 4 kilometroko luzerarekin, inolako trabarik izango ez duen bi udalerriren arteko lotunea bilatzen du Basauri eta Arrigorriaga, Nerbioi ibaiertzari jarraiki, eta hori oinezkoek eta bizikletek erabili ahal izango dute soilik.



SAN MIGELERA KO BIZIKLETA ERREIA

Hasiera eman zaie oinezkoen ibilbidea eta bizikletentzako erreia eraikitzeko obrei, horrek udalerriko erdigunea eta San Migel auzoa lotuko ditu, eta baita ere, ibaiertzeko bideak, horren luzera 1,2 kilometroko ingurukoa izango da.



1.3 BESTE JARDUERA BATZUK

SEMAFORO SOINUDUNAK:

Basauriko 74 semaforo guztiak berrituak izan dira aurtengo urtean, eta oinezkoen pasaguneetan, itsuentzako errepikagailu akustikoak jarri dira.

HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA

Edukinontzi guztiak minusbaliatuentzat egokituak daude, eta hori horrela, horiek erraztasunez iritsi daitezke horietara, baita gurpil-aulkietan ere.



Etkez etxeko bilketari dagokionez, Udal honek bere adinagatik edo ezgaitasun fisiko edo minusbaliotasunagatik ezindutako pertsona guztiei bermea eskaintzen die, hondakin handiak beren etxeetatik bilketa lekuraino eraman ahal izateko.

PODOTAKTILAK

Oinezkoen pasabide ia guztiak jaitsi eta seinaleztatu egin dira, eta itsuentzako baldosa podotaktikak jarri dira.



- MINUSBALIATUENTZAKO APARKAMENDUAK

Udalak urteak daramatza ezgaituentzako aparkamenduak jartzeko lanean, eta askogatik gainditzen du indarrean dagoen arautegian erabakitako plaza kopurua, bai aparkamendu publikoetan bai kaleko aparkamenduetan.



1.4 JARDUERAK ERAIKIN PUBLIKOETAN

UDALETXEA

Erabateko berrikuntza egin da, bai sarrerarena bai eraikin berarena, eskaileren ordeztararako jarri dira, plataforma jasotzailea jarri da baita ere, eta leku guztietarako sarrera erraztu da, eta bestalde, arreta berezia jarri da Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan.




EPAITEGIA

Eraikinera sartzeko eskaileren ordeztarapala jarri da.

IKASTETXEAK:

Ikastetxe guztietako sarrerak traba arkitektonikorik gabe daude. Nabarmendu behar diren azken ekintzak honako hauek dira:

- Lope de Vega H.I. sarrerako arapala.



- Velazquez H.I. sarrerako arapala.



- Bidebieta BHI-an ingurua egokitu eta arrapala



- Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Zentrora eta Hizkuntza Eskolara sartzeko arrapala eta igogailua jartzea

KIROL EKIPAMENDUAK ETA EKIPAMENDU SOZIOKULTURALAK

Kultur Etxe, Gizarte Etxe, Erakusketa Gela, etab. guztiak egokituak aurkitzen dira.

SOCIAL ANTZOKIA



Hasiak dira eraikina handitzeko obrak. Horren barruan sartzen dira igogailua jartzea, eta soinu-frekuentziaren indukzio-loturaren sistema jartzea UNE-EN 60118-4:2007 arauaren arabera.

EGOITZAK

Udalerrian hiru egoitza publiko daude.

Udal Egoitza bat pertsona nagusientzat, horrek arrapala du sarrera errazteko, eta toki guztietarako sarbidea du, aldi berean, bi gelako bainu egokituak ditu.

Erabiltzaileen artean, gutxi gora-behera erdiak, minusbalotasun motaren bat dauka.



Beste Egoitza bat, lagundutako pertsona nagusientzat eta Eguneko Zentroa, guztiz egokitua.

San Migeleko auzoan, Egoitza Publiko bat dago minusbalotasun psikikoa duten pertsonentzat.

KIROLDEGIAK

Artunduagako Kiroldegiak hurrengo zerbitzu hauek ditu:

- Egokitutako aulkia igerilekuetan bainatzeko.
- Gurpil-aulkia minusbaliatuen aldagelatik instalazioetara.
- Minusbaliatuentzat sarrera egokitua eraikinera, aldageletara eta bainugelara.
- Instalazioko aparkamenduan plazen erreserba



Azken ekintzetako bat instalazioetarako sarrerako ateak aldatzea izan da, lehengoak kendu eta irekiera integrala duten automatiko batzuk jarri dira.

1.5 JARDUERAK ERAIKIN PRIBATUETAN

1997. urtetik, Basauriko Udalak laguntza ekonomikoak ematen ditu igogailuak eta eskailera-igogailuak jarri, eta/edo sarrerako kotara jaisteko obrak egiteko, instalazio edo obra horiek ez dituzten egoitzazko higiezinetan.



Emandako dirulaguntzen zenbateko osoa 1.485.894,73 eurora igotzen da.

Eraikin askok dituzten zailtasunak ezagututa, aparailu jasotzailea fisikoki eraikinean integratzeko, Udal honek Ordenantza bat onetsi du igogailua fatxadatik jartzea ahalbideratzeko, eta gainera, **eremu publikoak erabiltzea** eta loja pribatuak edo horien zatiren bat **desjabetzea** ahalbideratu du, hori ezinbestekoa izango balitz.



Udalak EIOZ-ren kuotatik % 90eko hobaria ematea onetsi du, eraikuntza, instalazio eta obren mesedetan, baldin eta horietan minusbaliatuen sarrerari eta bizitzeko moldaerari dagozkion baldintzak errazten badira.

Ordenantza bidez arautu da **merkataritzako lokalak etxebizitzetan bihurtzea**. Aipatu erregulazioak dituen helburuen artean, etxebizitza merkeagoak izateko modua edukitzeaz gain, beheko solairuetan egongo diren etxebizitzak bultzatzea izan da, pertsona nagusiek eta minusbaliotasun mailaren bat dutenek horiek erosteko aukera izan dezaten. Zentzu horretan, mota horretako etxebizitzak sustatu eta minusbaliatuentzat egokitzen dituztenei, Udalari ordaindu behar dioten hirigintza-karga hobarian ematen zaie, erabilera eta obren baimena emateko baldintzetako bat bezala, % 50ean.

2 GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

2.1 METROA.-

Obrak amaitzeaz daude. Lehen geltokia inauguratzeko aurreikusi den data 2011ko martxoa da, eta bigarren geltokiarena, urteko azken hiruhilekoa. Hori funtzionamenduan sartzen denean, urrats garrantzitsu bat emana izango dugu mugikortasun iraunkorrari begira.



2.2 ANEZKAK

Basaurik bi autobus-anezka ditu, bata Bizkaiko Garraio Partzuergoarena eta bestea udalarena, horien funtzioa bidaiariak Metrorra eraman eta ekartzen da, metroaren zerbitzua udalerriraino iristen ez den bitartean.



3 TEKNOLOGIA BERRIAK

3.1 WEB ORRIRA SARBIDEA

Basauri.Net ataria garatzekoan fidagarritasun, irismen eta erabilgarritasun faktoreak izan dira kontuan.

Web orriaren irismenak esan nahi du ezen, minusbaliotasun motaren bat duten pertsonak web leku batera sarrera izan dezatela. Zehazkiago, Web irismenak ahalbideratzen du ezen, ikusteari, mugimenduari eta kognizioari dagokion minusbaliotasuna duten pertsonak, aditu, nabigatu eta elkar eragin dezaketela web leku batean. Irismenaren ulertzea laguntzeko lekuak

Gaur egunean zenbait orrialde daude erabilgarri zeinu-hizkuntza erabilia.

Beste alde batetik, basauri.net orriari buruz hurrengo hau nabarmendu behar da, informazioa ulertzeko erraztasuna, idazketa estiloak informazioa hizkuntza

naturaletan aurkeztzen du, atariaren edukia hizkuntza naturalean idatzia dago, eta hori horrela, hori erabiltzeko erraztasuna du pertsona talde oso zabal eta heterogeneoak.

Beharrezkoa ikusi den ataletan itzulpena egin da zenbait hizkuntzetara, eta horietara sarrera daukazu menu nagusitik barna. Horrela, informazioa hizkuntza desberdinetan ikusi daiteke, nahi den hizkuntzaren gainean sakatuz, eta atariko orrialde nagusira itzultzen ibili beharrik gabe.

Basauriko web orriak betetzen ditu XHTML eta CSS estandarren eta Web “A” bikoitzeko Irismenaren Gidaren zehaztaperen teknikoak.

Objetivos y funciones - Lenguaje de signos



La Sección de Bienestar Social del Ayuntamiento de Basauri tiene como misión, facilitar el acceso a la prestación de servicios a todos los ciudadanos y ciudadanas de Basauri que por diferentes causas sean vulnerables o se encuentren en una situación de exclusión social. La Sección de Bienestar Social informará, valorará y orientará a todas las personas que así lo soliciten y que se encuentren más desfavorecidas, para procurar la mejora de su calidad de vida, de su bienestar y de su plena integración desde el respeto a su diferencia. Dentro del marco de la legislación vigente, y en función de las competencias, la Sección de Bienestar Social presta servicios a nivel primario o de base, es decir, a toda la ciudadanía en general y en particular a las personas o grupos más desfavorecidos del municipio.




3.2 KANAL ASKOTAKO ZERBITZUA

Udalak, udal zerbitzuen gutuna herritar guztiei helarazteko bere estrategiaren barruan, kanal askotako estrategia garatzea aurreikusi du, modu horretan, herritarrek zerbitzuetara sarrera web orriaren eta telefonoaren bidez izan dezaten.

Estrategia hori aurrera eramateko udal zerbitzu eta izapideei buruzko azterketa egin zen, udalera etorri beharrik izan gabe telefono bidez eskaini daitezkeen haiek identifikatzeko helburuz.

Zerbitzuak udalaren web orrian agertzen dira, eta kanal horien bidez gehien eskatzen direnak honako gestio hauek dira:



hitzorduak, abisu kexa eta iradokizunak, erroldatze egiaztagiriak, izen-emateak, etab.

3.3 E-BASAURI 2010

Udalak oinarritzko helburu gisa jarri zuen, 2007 – 2010 legealdiko Planaren barruan,

Zerbitzu Publikoak Herritarrei Modu Elektronikoa Hurbiltzeko Legea betetzea.

Irismenaren marko barruan, udal zerbitzuak Basauriko herritarrei Web orriaren bidez eskaintzeak udaletxera hurbildu beharrik eza ekarri du.



Gaur egunean, 60 zerbitzu elektronikoa baino gehiago eskaintzen dira, eta horren bidez udaletxea 24x7 denboran “irekita” egoten da, bertara hurbildu beharrik gabe.

3.4 ALDI BEREKO ITZULPENA

Biztanlerian gero eta dibertsifikatze handiagoa dago, eta hori administrazioarekin gero eta gehiagotan jartzen da harremanean, eta horrek hizkuntza eta kultura trabak sortu ditu.

Azken kasu horretan, hizkuntza traba handia da, eta horregatik, udalak 2007an aldi bereko itzulpenari dagokion sistema jarri zuen abian, administrazioaren eta atzeritarren arteko komunikazioa bideratzeko helburuz.

Sistemak 51 hizkuntzetan eskaintzen du zerbitzua, “aurrez aurrekoa” bezala ezagutzen dugun zuzeneko interpretazioaren bidez, eta hori esku libre bikoitzaren bidez egiten da, zeina telefono mugikor batera konektatua dagoen, horretatik hizkuntza desberdinetan hitz egiten duten bi pertsonak presente ez dagoen eta sorterrikoa den interprete baten bidez jarraitzen dute elkarrizketa, izan ere horrek elkar hizketa telefono hariaren beste aldetik itzultzen baitu.



3.5 TRAMITAZIO ELEKTRONIKORAKO GUNEAK



Basauriko Udalak, administrazio elektronikoa zabaltzeko bere estrategiaren barruan, eta herritarrei kanal horretarako sarbidea errazteko helburuz, udalerri osoan barna “kiosko” elektronikoen sarea sortu du, eta horien bidez Zuzeneko Kanaleko plataformara sar daiteke, non zerbitzu elektronikoa eskaintzen diren.

Garrantzia eman zaio postuen muga fisikoak kentzeari, eta horiek minusbaliotasuna duten pertsonen erabiltzeko moduan diseinatu dira.

4 PRESTAKUNTZAKO, KIROLEZKO ETA GIZARTE PROGRAMAK

4.1 BASAURIKO PROBAK MEETINGA

Kirol ekitaldi hori, zeinak Basauriko Udalak babesten duen, minusbaliotasuna duten pertsonen zuzendua dago, eta meeting horretan minusbaliotasun kategoria guztietakoek parte hartzen dute (fisikoak, adimenekoak, entzumenezkoak, ikusmenekoak eta garun-perlesia)

Meeting horretan 200 pertsona inguruk parte hartzen du, 15 herrialdeetatik datozenak gutxi gora-behera, eta Artunduagako Udal Kiroldegian egiten da.

BASAURIKO PROBAK Meetinga, minusbaliatuen munduarekin dugun konpromiso eta elkartasunaren ondorioa da orokorrean, eta bereziki, egokitutako kirolarekin dugunaren ondorio.

BASAURIKO PROBAK meetinga finkaturik dagoen kirol ekitaldi bat da, eta bertara nazioko eta nazioarteko atleta onenak etorri ohi dira, eta urtero ugaritzen ari da proiektuan sinesten duten Erakunde eta Enpresen kopurua, eta horren froga urtez urte argi geratzen da. Beste alde batetik, jendearen babes oso handia da, eta hori edizio bakoitzean kiroldegiko harmailak nola urtetik urtera gero eta kopuru handiagoan bete diren islatzen da.

2010eko maiatzaren 30ean, XII. Edizioa egin da, eta horretan, txapeldun eta dominadun paralinpikoek parte hartu dute, eta Victor Gutierrez eta Xabier Porras atletak omendu dituzte.



4.2. BESTE PROGRAMA BATZUK

- Arizko Ikastolan Egokitutako Eskola Kirola, Bizkaiko Egokitutako Kirolaren Federazioarekin batera (FDAB-BKEF).
- Igeriketako Ikastaro Berezien programaren helburua, minusbaliatuei eta premia bereziak dituzten pertsoneri igeriketa irakatsi eta horretan hobetzea da, pertsona horien ezaugarriak direla eta, ikasketa orokorreko programen barruan ezin dutelako parte hartu.

- Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioarekin lankidetzan “BUSTI ZAITEZ – MOJATE POR LA ESCLEROSIS MULTIPLE” Programan, horren helburua gaixotasun horrek duen arazoaren gaineko sentsibilizazioa eta informazioa ematea da, horrek gazteei eragiten die eta gaur egunean oraindik ere sendaezina da, bestalde, birgaitze zerbitzurako finantzazio funtsak lortzea bilatzen da. Hori Artunduagako Kiroldagiko igerileku irekietan egiten da, informazioko standeei eta merchandising-aren salmentarekin.
- Minusbaliotasuna duten ikasleentzat Laguntzaileak jartzen dira, Igeriketako Eskola Programan.
- Mahai Teniseko Klubari instalazioak lagatzen zaizkio, horretan, minusbaliotasuna duten pertsonak parte har dezaten.
- Eskubaloia Solidarioko partida egiteko instalazioak lagatzea, non dirua batzen den ongintzako erakundeentzat.

4.3. PERTSONA ZAINZAILIARI BEGIRA, AUTONOMIA ETA LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA LANTZEA

Herritarren Harremanetarako Arloak “Pertsona Nagusien Menpetasun egoerari buruz Jardunaldiak” antolatzen ditu, eta horietan ez da bakarrik menpetasun mota desberdinei hitz egiten, baizik eta batez ere, egunez egun zaintzaileek daramaten lan eskergan, zeinak askotan Udalera hurbiltzen diren minusbaliotasunari buruz informazioa eskatzen, eta hori nola zaindu galdetzen.

Gai horrekin sentsibilizatuta, Udal honek jardunaldi horiek antolatu ditu, non menpetasun desberdinak lantzen dituzten profesionalak eta elkarteak parte hartzen duten.

Orain arte, hurrengo gai hauetako batzuk jorratu dira: Zaintzailea zaintzea; ikusmena galtzea; Fibromialgia; Traba arkitektonikoak (udal barruan ibilbide alternatiboen diseinua), etab.

Honako hauek dira aurreikusitako batzuk: Menpetasunaren Legea; Basauriko Baliabideak/Menpetasuna dutenentzako Egoitza Berria.

4.4 MOBILIZAZIO ETA TRANSFERENTZIEN TAILERRA

Aurkezten den tailerrak alde praktikoa du bereziki, eta helburua gaitasunean eta trebetasunean prestatzea da, zaintzaile diren pertsonak mobilizazioa eta transferentzian presta daitezen eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan (higienea, desplazamenduak, bainua edo dutxa, jatea...).

Menpetasuna duten pertsonen mugikortasunarekin zerikusia duten arazoak izaten dituzte, horiek batzutan progresiboak izaten dira, osteoartikularrak, podologiako aldakari batzuk edo adinak eragindakoak, bestetan azkar agertzen dira, eta hori horrela, zaintzaileek etxe barruan eta kanpoan mugitzen eta ibiltzen lagundu behar diete beren familiarrei.

Beste alde batetik, menpetasunak zenbaitetan laguntza teknikoa erabiltzea eskatzen du (gurpil-aulkiak, helduleku edo eskulekuak, eskorgak...) edo orto-protesiak (makilak, makuluak...), eta zaintzaileek beti ez dute jakiten nola erabili behar diren tramankulu horiek.

4.5 PROGRAMEI LAGUNTZA ESKAINTZEA:

Zenbait programa egiteko laguntzak eskaintzen zaizkie hurrengo kolektiboek:

- DOWN SINDROMEAREN FUNDAZIOA
- APNABI. (Zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituen elkarte, autismoa duten pertsonen eta horien familien bizi-kalitatea hobetzeko helburuz)
- ESKLEROSI ANIZKOITZA FUNDAZIOA
- ATCORE (Bihotz eta biriketako gaixo eta transplanteak dituztenak)
- ATECE (Adimen gaixotasun eragina)
- ASEBI (bizkarrezur bifidoa edo hidrocefalia duten gaixoak)
- PARKINSON BIZKAIA-ASPARBI ELKARTEA.
- EMAN ESKUA (Fibriomialgia eta Neke Kronikoaren Sindromea duten gaixoak)

- LARINGECTOMIZATUAK ETA ABOTSA MUTILATUA DUTEN
PERTSONEN BIZKAIKO ELKARTEA
- BIZKAIKO CROHN ET KOLITIS ULTSEROSOA DUTEN GAIXOEN
ELKARTEA
- ACOBI. (Chernobyleko erradioaktibitatearen eragina duten errusiar umeak
aldi baterako jasotzea)
- ALCER. (Giltzurruneko gaixotasuna dutenak)
- DISLEXIA DUTENEN EUSKADIKO ELKARTEA (DISLEBI)
- AZE (Zeliakoak)
- BASAURIKO GORMUTUEN ELKARTEA